


Euskal AEko BPGk urte arteko % 0,2ko hazkundera izan zuen 2011ko laugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hazkundera negatiboa izan da (-% 0,2)

Euskal AEko BPG %0,2 hazi da 2011ko laugarren hiruhilekoan, 2010eko hiruhileko berdinarekin alderatuz gero, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko hiruhilekoan izandako hazkunderarekin erkatuz gero, tasa positibo hau lau hamarren baxuagoa da. Espainiako ekonomiari dagokionez, tasa % 0,3koa izan da, INEk argitara emandako alde zurretiko zenbatespenaren arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Euskal AEko BPGk hazkunde negatiboa izan du (-% 0,2) laugarren hiruhilekoan; aurreko hiruhilekoan, ordea, % 0,0ko hazkunde nulua gertatu zen. Hiruhileko arteko aldaketa hau Espainiako ekonomiak (-% 0,3) erregistratu duena baino hamarren bat altuagoa izan da, INEk alde zurretik emandako balioespenari jarraiki.

1. grafikoa. BPG m / p. Urte arteko eta hiruhileko arteko hazkunde-tasak. (%)



Iturria: EUSTAT - Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak - eta INE

Eskaintzaren ikuspuntutik, hiruhileko honetan urte arteko hazkundera Merkatuko zerbitzuen bilakaera positiboari zor zaio nagusiki, nahiz eta aurreko hiruhilekoko baino motelagoa izan den. Lehen sektoreak ere bilakaera positiboa izan du 2011ko laugarren hiruhilekoan. Kontrara, Industriaren sektoreak, Eraikuntzak eta Ez-merkatuko zerbitzuek portaera negatiboa erakusten dute berriz ere, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz gero.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010	2011	2010				2011			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Nekazaritza eta arrantza	24,7	-7,6	-7,3	9,6	51,8	48,2	-13,9	-16,0	-21,6	16,9
Industria	1,8	2,1	-1,4	2,2	3,5	2,8	3,7	3,3	1,5	-0,2
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-11,0	-10,3	-9,8	-7,9	-4,6	-5,6	-6,0	-4,8
Zerbitzuak	0,6	0,9	0,6	0,9	0,4	0,5	0,8	1,0	1,3	0,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,0	0,2	0,9	2,0	3,0	2,0	0,0	-0,5	0,3	0,9
BPGda merkatuko preziotan	0,3	0,6	-0,8	0,4	0,8	0,8	0,9	0,8	0,6	0,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektoreak urte arteko hazkundera izan du (% 16,9), baita hiruhileko artekoa ere (% 50,3); aurreko hiruhilekoekin erkatuta, urte arteko bilakaeraren joeran aldaketa dakar honek.

Industriaren sektoreak hazkunde negatiboko tasak izan ditu urte arteko terminoetan (-% 0,2), azken 6 hiruhilekoetan hazkunde positibo jarraikorrek izan ondoren. Hiruhilekoen artekoari dagokionez, hirugarren hiruhilekoan gertatutako beherakada (-% 0,6) areagotzen da, laugarren hiruhilekoan gertatutako jaitsierarekin (-% 1,6).

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010				2011			
	I	II	III	IV	I	II	III	IV
Nekazaritza eta arrantza	0,3	9,3	34,2	0,8	-41,8	6,6	25,3	50,3
Industria	-0,1	1,7	1,1	0,2	0,7	1,3	-0,6	-1,6
Eraikuntza	-6,1	-0,9	-1,0	0,0	-2,7	-2,0	-1,5	1,3
Zerbitzuak	0,0	0,3	-0,4	0,5	0,3	0,4	0,0	-0,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,1	1,1	0,4	0,4	-1,8	0,6	1,2	1,0
BPGda merkatuko preziotan	0,2	0,3	0,2	0,1	0,3	0,2	0,0	-0,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzaren sektoreak beheranzko bidean jarraitzen du, eta urte arteko tasa negatiboa erregistratu du laugarren hiruhilekoan (-% 4,8); aurreko hiruhilekoetan erregistratutakoa baino txikiagoa da jaitsiera hori, 2011ko lehen hiruhilekoa salbu, aurreko hiruhilekoaren aldean portaera positiboa islatuz (% 1,3), hiruhileko arteko beherakada-aldi luzearen ondoren.

Urteko laugarren hiruhilekoan **Merkatuko zerbitzuen** urte arteko jardueraren bilakaerak positiboa izaten jarraitzen du (% 0,8), aurreko hiruhilekoan lortutako tasa baino hamarren bat gutxiago; hiruhileko arteko terminoetan, halere, hiruhileko honetan % 0,4ko hazkundera gertatu da.

Ez-merkatuko zerbitzuek, oster, hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte azken hiruhileko honetan, bai urte arteko terminoetan (-% 0,3) bai hiruhileko artekoetan (-% 2,3), termino biotan joera positiboa agertu duten bi hiruhilekoen ondoren.

Zerbitzuen sektore osoko bilakaera (% 0,6) positiboa izan da aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean; baina aurreko hiruhilekoetan izandakoarekin alderatuta bilakaera ez da hain positiboa izan, eta hiruhileko arteko terminoetan urtean negatiboa lehen aldiz (-% 0,1).

Sektore agregatuen bilakaerak **Balio Erantsia** haztea eragin du urte arteko terminoetan (% 0,1), hirugarren hiruhilekoan izandakoa baino hazkunde txikiagoa. Atzerakada hiruhileko arteko terminoetan ere nabari da: hiruhileko arteko joera negatiboa (-% 0,4) aurreko hiruhilekoan (-%0,1) izandakoa baino nabariagoa da.

Eskariaren aldetik, aurreko hiruhilekoetan bezala, kanpo sektoreak eragin positiboa izan du BPGren hazkunderan, urte arteko hazkunde nabarmenekin esportazioetan zein inportazioetan.

3. taula. BPG m / p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010	2011	2010				2011			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	0,9	0,6	-0,6	1,5	1,5	1,3	0,8	0,3	0,9	0,5
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	2,3	-0,8	1,8	2,7	3,0	1,5	1,3	1,3	-2,0	-3,6
Kapital-eraketa gordina	-6,0	-1,5	-9,7	-6,8	-4,0	-3,1	-1,8	-1,0	-0,2	-2,8
Barne-eskaria	-0,5	-0,1	-2,4	-0,3	0,4	0,2	0,3	0,2	0,2	-1,0
Guztizko esportazioak	7,6	9,0	4,0	9,8	6,5	10,0	13,3	3,2	12,4	7,3
Guztizko inportazioak	5,5	7,4	0,9	7,7	5,3	8,5	11,6	2,1	11,1	4,9
BPGda merkatuko prezioetan	0,3	0,6	-0,8	0,4	0,8	0,8	0,9	0,8	0,6	0,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Etxeetako azken kontsumoko gastuari (kontsumo pribatua) dagokionez, urte arteko hazkunde positiboko tasa erregistratu da (% 0,5), aurreko hiruhilekoko baino lau hamarren baxuagoa. Azken hiruhilekoan bezala, hiruhilekoen artekoan jaitsiera gertatzen da (-% 0,1 laugarren hiruhilekoan, -% 0,2 aurreko hiruhilekoan).

Kontsumo publikoa (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua) urte arteko hazkunde-tasa negatibo handienarekin agertzen den makromagnitudea da (-% 3,6); tasa hori aurreko hiruhilekoan izandakoa baino baxuagoa da puntu eta erdi luzean: hiruhileko artekoan % 2,4ko jaitsiera, hirugarren hiruhilekoan izandako % 0,9ko beherakadaren aldean.

Administrazio Publikoen gastuaren murrizketak **Azken Kontsumoko Gastua** (Etxeetako Azken Kontsumoa gehi Administrazio Publikoena) beherantz bultzatu du, aurreko urteko laugarren hiruhilekoan izandakoarekin (-% 0,4) eta 2011ko hirugarren hiruhilekoan gertatu zenarekin (-% 0,7) alderatuta.

Kapitalaren Eraketa Gordinak (Inbertsioa) 2011ko erregistrorik txarrenak izan ditu laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoetan gertatutakoak baino urte arteko (-% 2,8) zein hiruhilekoen arteko (- % 1,9) beherakada handiagoekin.

Barne eskariak (Azken Kontsumoko Gastua gehi Kapitalaren Eraketa Gordina) behera egin du urteko azken hiruhilekoan. Urte arteko terminoetan beherakada % 1ekoa da, aurreko hiruhilekoetako igoeren ondoren; hiruhilekoen arteko terminoetan jaitsiera % 1,1ekoa da, aurreko hiruhilekoan (-% 0,6) gertatutakoa baino beherakada nabarmenagoa.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010				2011			
	I	II	III	IV	I	II	III	IV
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	0,7	1,1	-0,8	0,4	0,2	0,6	-0,2	-0,1
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	-1,4	1,4	2,4	-0,8	-1,6	1,4	-0,9	-2,4
Kapital-eraketa gordina	-1,4	-1,6	-0,9	0,8	0,0	-0,8	-0,1	-1,9
Barne-eskaria	0,5	0,3	-0,6	0,0	0,6	0,1	-0,6	-1,1
Guztizko esportazioak	4,4	4,9	-0,5	1,0	7,6	-4,4	8,3	-3,7
Guztizko inportazioak	5,7	3,5	-1,5	0,7	8,7	-5,3	7,1	-4,9
BPGda merkatuko preziotan	0,2	0,3	0,2	0,1	0,3	0,2	0,0	-0,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpoko sektoreak BPGren gainean izandako eragina, aurreko hiruhilekoetan bezala, positiboa izan da. Urte arteko terminoetan esportazioen bilakaera (% 7,3) hedakorragoa da inportazioena baino (% 4,9); horrek kanpo-saldoan hobekuntza ekarri du, BPGren bilakaera erlatiboki hobea azaltzen duena, Barne Eskariarekin alderatuz gero.

BPGren urte arteko hazkunde apalak **Lanpostuetan** zenbatutako enpleguaren beherakada ekarri du, urte arteko % 1,3ko jaitsierarekin; 2011ko hirugarren hiruhilekoarekin erkatuta, beherakada % 0,7koa izan da.

Lanpostuen galera, aurreko hiruhilekoetan bezala, Industrian eta, bereziki, Eraikuntzan gertatu da, bai urte arteko terminoetan baita hiruhilekoen artekoetan ere. Sektore biotan beherakada aurreko hiruhilekoan gertatutakoa baino nabariagoa da (-% 2,4 eta -% 9,7 laugarren hiruhilekoan, hurrenez hurren). Lehen sektorean ere lanpostuen bilakaera negatiboa izan da, urte arteko jaitsiera (-% 2,2) aurreko hiruhilekoetakoa baino txikiagoa izan bada ere. 2010eko azken hiruhilekoarekin alderatuta, Zerbitzuen sektoreak bakarrik sortu ditu lanpostuak, urte arteko % 0,2ko hazkundearekin; halere portaera negatiboa da berriro ere, 2011ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

BPGren bilakaera lurralde historikoen arabera aztertuz gero, Bizkaiak Euskal AEk izandakoa baino urte arteko portaera hobeagoa izan du, % 0,3ko hazkundearekin. Gipuzkoak % 0,2ko hazkundea izan du, eta Arabak ez du bere BPGn aldaera nabarmenik izan; 2011ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, halere, jardueraren hazkundea azken lurralde honetan bakarrik gertatzen da, hiruhileko arteko % 0,1eko igoerarekin.

2011. urte osoan zehar BPG % 0,6 hazi da, eta enplegua % 0,6 jaitsi

Euskal AEko ekonomiaren Balio Erantsia % 0,6 hazi da 2011n zehar. Sektoreka, Industriaren sektoreak eta Zerbitzuenak hazkundea izan dute balio erantsian: % 2,1 eta % 0,9, hurrenez hurren. Zerbitzuen sektorearen barruan, bai merkatukoek (% 0,9) bai ez-merkatukoek (% 1,1) bilakaera positiboarekin jarraitu dute. Kontrara, balio erantsiaren portaera negatiboa izan da 2011n Eraikuntzan (-% 5,3) eta Lehen sektorean (-% 7,6). Produktuen gaineko zerga garbiaren eragina 2011 osoan positiboa izan da, % 0,2ko hazkundearekin

Eskariaren aldetiko analisisian, **Barne Eskariaren** jaitsiera dago (-% 0,1), BPGren urte arteko % 0,2ko hazkundearen aldean; beraz, 2011 osoan kanpo-saldoaren ekarpen positiboa dago.

Etxeetako Azken Kontsumoko Gastuaren hazkundeak (% 0,6) eta Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastuaren jaitsierak (-% 0,8) Azken Kontsumoaren portaera positiboa ekarri dute 2011n zehar, % 0,3ko hazkundearekin. Kontrara, laugarren urtez jarraian Kapital Eraketa Gordinaren portaera negatiboa gertatu da, oraingo honetan gutxixeago jaitsi bada ere (-% 1,5).

Enpleguaren bilakaera negatiboa izan da 2011n zehar, **lanpostuetan** zenbatuz: % 0,6ko jaitsiera zenbatetsia. Zerbitzuen sektoreak bakarrik sortu ditu lanpostuak, % 0,9ko hazkundearekin enpleguan. Lehen sektoreak (-% 3,9) Industriak (-% 1,9) eta Eraikuntzak (-% 7,8) enplegu-mailan beherakadak izan dituzte.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua](#)